



KEPA ALTONAGA BIOLOGIAN DOKTORE ETA ZIENTZI DIBULGATZAILEA



PABLO S. QUIZA

«Armand David bere garaian gizon aitzindaria izan zen»

1999an CAF-Elhuyar zientzia-dibulgaziorako saria irabazi zuen Kepa Altonaga biologoak. Sariaren emaitza orain aurkeztu du: Armand David naturalista ezpeletar handiari buruzko liburua



Liburuaren izena: 'Armand David pandaren aita'
Egilea: Kepa Altonaga. 1999ko Caf-Elhuyar zientzia-dibulgaziorako

sariaren irabazlea
Argitaletxea: Elhuyar
Orrialde kopurua: 251

Arantxa Iraola | DONOSTIA

Armand David (1826-1900) naturalista ezpeletarrari Kepa Altonaga biologoak azken urteotan eskaini dizkio hamaika ilusio, neke eta ahalegin. Guztien emaitza *Armand David pandaren aita* liburua da. Atzo aurkeztu zuen Donostian, adiskide artean. EGUNKARIA-rekin mintzatzeko ere izan zuen tarte bat.

■ **Armand David euskaldun unibertsal ezezaguna izan dela diozu. Kontaiguzu, zein arrazoi nagusi daude bera itzaletatik ateratzeko?**

Batetik, bere sasoiaren egindako ekarpenak oso garrantzi handikoak izan zirela. Bestetik, Armand David bere garaian gizon aitzindari izan zela. Esaterako, eboluzionista izan zen oso goiz. Oso deigarria da hori, abadea

zelako, eta gainera, Frantziakoa. Frantzian oso berandu sartu ziren eboluzioaren ideiak.

■ **Euskaldunon artean arrotza da Armand David. Atzerrian ere bai?**

Ezagunagoa da, adibidez, badago berari buruzko biografia bat ingelesez. Dena den, txarto eza gutzen da. Esaterako, Entziklopedia Britanikoan jartzen du jesuita zela... Datu okerrak dauka.

■ **Erligio jarduerak Txinara eramanezuen eta bertan burutu zuen bere lana Armand Davidek. Esaterako, panda deskribatzen lehen naturalista izan zen. Zer aurkikuntza gehiago egin zituen?**

Hainbat ugaztun bidali zituen Parisera, 60tik gora espezie berri aurkitu zituen. Dena den, bera berez ornitologoa zen. Ildo horretan, tomo biko liburu bat idatzi zuen *Les oiseaux de la Chine* (Txinako hegaztiak). Bertan 70 espezie deskribatu zituen.

■ **Botanikan ere egin zuen ekarpenik, ezta?**

Txinara joan zenean Parisko museoan eskatu zioten Txinatik edozein lagin bidaltzeko, animalia, landare zein mineral. Gogotsu aritu zen. Une batean Parisen ikusi zuten korrespondentsal oso ona zutela, eta liberatu egin zuten, eta esparru zoologikoan bereziki trebea zenez, batez ere animaliak jaso zituen.

■ **Txinan ezaguna al da Armand David?**

Bai. Ezpeletatik, esaterako, joan den azaroan bere heriotzaren mendeurrena zela-eta, ordezkartza bat joan zen Moupinera —leku garrantzitsua izan zen Davidentzat bere ikerketetan, paradisu bat—, eta plaka bat jarri zuten. Egundalako harriera ona eduki zuten...

■ **Elizgizona izan arren eboluzionista zen. Nola bizi zuen hori?**

Txarto. 1888an, esaterako, Parisen zientzialari katolikoen kongresua egin zen, Elizaren ortodoxiaren defentsan. Bera ideia darwindarrak defenditzen azaldu zen, eta sekulako txistualdia jasan behar izan zuen.

KLONAZIOA

Hilabete gutxi barruan gizaki bat klonatzeko asmoa du Antinoriren lantaldeak

Urtea bukatu aurretik gizaki bat klonatuko dutela esan du Severino Antinori zientzialariaren lankide Panayiotis Zavosek. Aditza eman duenez, jauzi handia egin aurreko urratsak oso ondo doaz, eta aurki egia bilakatuko dute beren xedea. Zavosek ez du argitu non ari diren egiten beren ikerketak. Herrialde askotan, ordeza, debekatu dago giza klonazioa, eta estatu zenbaitzuk, gainera, Nazio Batuen Erakundeari jardura horren kontrako nazioarteko hitzarmena adosteko eskatu diote.

GENETIKA

Triglizeridoen mailan eragin zuzena duen genea atzeman dute

Elikaduraren bidez heltzen diren gantzak giza odolean triglizerido bihurtzen dira. Odol analisi gehienetan kontrolatu egiten da gai kimiko horien maila, izan ere, ugariak badira, gaixotasun eragile izan daitezke. Orain Estatu Batuetako ikertzaile talde batek —Barkeleyko Laborategi Nazionalen dihardute— aditza eman duenez, triglizeridoen mailan eragin zuzena duen genea atzeman dute. Erraztu egingo da sendagileen lana.

OSASUNA

Depresioak erasandakoek bihotzekoa izateko arrisku handiagoa dute

Erresuma Batuko Bihotza-ren Fundazioak egin berri duen ikerketa baten arabera deprimituta egoteak bihotzekoa izateko arriskua handi dezake. Antza, depresioak eta estresak zainetan ondorio gaiztoak eragin ditzakete, eta horrek areagotzen du bihotzekoa izateko arriskua.

Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan lan egiteko izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna duten pertsonen bila gabiltza:

Publizitate Salmentarako Komertzialak

Eskaintzen dugu:

- Etorbizun handiko komunikazio proiektuan parte hartzea.
- Ordainsari finkoa eta aldakorra.
- Bezero poltsa.
- Formazioa.

Eskatzen dugu:

- Euskaraz jakitea.
- Lan esperientzia edo komertzial arloko ikasketak izatea kontuan hartuko dugu.
- Autoa izatea.

Interesatuak bidali curriculumak:
Donostiako 1281 posta-kutxatilara. Erreferentzia: Komertziala.